

**BIZKAITARRAI  
BIZKAIERAZ  
91n. AZILLA  
1985**



**BERNAGOITI IPAR-ALDETIK**

BIZKAITAR  
BIZKAIER  
91n. AZIL  
1985



**BERNAGOITI IPAR-ALDETIK**

## GUDARI KEMENTSUA

Orixe bai izan zala Goiria gizona: Gudari kementsua.

Irurogei ta amairu urtekoa zala il zan, Jaungoikoaren eskuetan. Euzkadi'ren alde ainbeste urtetan egin ebazan alegiñak eta artu ebazan samiñakaitik bere gizarte-onoimenen saria artzera joan jaku.

\* \* \*

Bere gorputza arnasa barik geratu zala jakitean, biozkada aundia artu genduan. Bere eriotza aurten, Kurutzetako gaisotegian jazo da, dagonillaren amai-kagarren egunean. Sano samindurik geratu ziran bere emazte ona eta bost seme-alaba gizatsu ta beargin zintzoak.

Nork ez daki gizaldi onen ogei ta amargarren urtetik berroigeigarrenera odoletan agertu zala Euzkadi, España'ko erkal edo errepublika-zaleak Franco'ren indarra nazi ta faszista gudarosteen indarrak lagun ebezala egin jaken gudaldian?

Euzkadi'k deitu eutson orduan mutil gazte zan Garai gizonari Otxandiano izena eroian talde adoretuan aberria aldezteko. Euzkadi'ren alde Goiria gudan egoan artean ni Galizia'ko Ikastetxean egon nintzan Jainko-Iztia ikasten eta eurak guda-zelaietara joan ziranean, bakar gelditu nintzan.

Gogoan daukat zelako ekiñaldiak egin ebezan gure gudariak Lemoa-atxa ber-arrapatzeko. Udabarrria sartua zan, udearen asierea. Egunak argiak eta luzeak ziran eta Franco'ren aldekoak ordu luze orreik artzen ebezan euren ekiñari jarraitzeko Euzkadi'ren aurka.

Biotz-ikara aundiak emoten euskuezan gure gudarien ekintza barriak. Adibidez Lemoa-atxean egiten ebena: Gora igon, ganera eldu eta kementsu artu, arerioak ain ugariak izan arren.

Baiña, ene! Udako egun argi areitan ikaragarriak ziran alemanen tramankulu aundiak eta egazkin aundien dunbadak. Atzeratu egin bear. Izkillu bardiñak izan ba'litzaz ikusiko eben arerioak zelakoak ziran euskaldunak. Baiña Lemoa-atxean ainbat gudari adoretzuk emon eben bizia aberriaren alde!

Goiria gudaria ez zan il, baiña zauri sakonak artu eta odola ugari isuri bai. Gero atxillotu egin eben eta espetxeratu. Kartzelan lenengo osaketak egin eutsoezan baiña ardura aundi barik, burdin-zatiak gorpuztean itzita. Orreik be eriotzea aurreratzeko zioa izan ziran.

\* \* \*

Galdakao'ko gaisotegi barrian asteak eroiazala, etxera ekarri eben eta gogoia emoteko berbak esan arren, gizajoa, ezin osatu burdin-zatiak barruan zira-la! Kurutzetara eroan eben gero eta an kendu eutsoezan burdin-zati orreik, baiña ezin izan zan eriotzea atzeratu eta Euzkadi'ren odol autorleak gaur eskin-tzen dautsogun omena irabazi eban.

\* \* \*

Bere bizitzan gizon alaia izan zan, bola-jokoan trebea, musean ospetsua.

Zoriona izan dagiala gudari ta jolas eta kirolari ospetsuak.

LETONA'k



## **NORANTZA?**

### **KONDAIRA 2000N. URTERA**

Bimillagarren urtearen ateetarantza urreratzen gara eta gure inguruko munduari egiten dautsaguzan azterpenak ondo bearrezkoak doguz, gure biotz onaren ondorenak eta barru txarraren eragiña geroago ta argiago agiri dalako.

Banaka ta taldeka ez dogu aitzu bear atsegin-baratza dan ludi onetan suge maltzurra beti dagoala barruan.

### **MUNDU BARRIA**

Ukatu eziña dogu, azkenengo urteetan begien aurrean daukaguzan jazokizunak aztertu ezker, naizta aztertze sakona izan ez, gizaldi onen asieratik eta geroago ta ariñago sortzen dirala aldakuntzak gure inguruan, Euskalerra osoan naiz inguru laburra-goan.

Konturatu barri-emoteak, izarren munduagazko artu-emonak, ibilte-azkarrak eta ainbeste asmakizun barri.

### **JOKABIDE OKERRAK**

Aldakuntza oneik bide dirala, len baiño geiago da gure mundua atsegin-baratz, baiña len baiño geiago, baita, sugearen abi. Berez gu zoriontsuak izateko diran aurrerapenak, barru txarraren indarrak eraginda, kaltegarri biurtzen doguz geuk.

### **ALKOOLA, KUNTZEA, POZOIA**

Orra or iru atseginbide kaltegarri biurtuak. Eta ez Euzkadi'n beste toki batzutan baiño gitxiago.

Alkoola antxiñatik izan dogu euskaldunen are-rioa, baiña ortik datorkun kaltea geroago ta izuga-

rriagoa da. Zenbat diru-eralketa alperreko! Zenbat etxeko asarre! Zenbat osasun-galtze!

Eta oiturea ainbestean sartu dan ezker, nok aterra gaiso orrek errian, gazteen eta elduen artean, sartu dauzan sustraiak? Eta ez moskortuta asko ikusten diralako!

Kuntze ede seksu-askatasunak, bere neurri ego-kiak galduta, gazteen sendotasuna ta beste zeregin batzutarako gurariak kendu dauz, ezkondu askoren zintzotasuna ta etxeko bakea apurtu dauz eta maitasuna bear dan lekura ainbeste asarre ekarri.

Eta drogeak edo pozoiak etxeetan eta kaleetan, ikastetxeetan eta jolas-tokietan zelako egoerea sortu dauan nork ez daki? Eta arazo baltz au asi baiño ez da egin. Ondorenak zeintzuk ete dira.

Olako ondamedira-bide batzuk Euskalerra gal-tzeko arerioak asmaurikoak dirala be esaten dabe batzuk. Antza dauko euki be. Eta gure erantzuna?

### **KALTE OROKORRAK**

Mundu zabalean diran beste bide oker batzuk be ikututen gaitue: Izkillubideak, izadia alperrik galtze-koak, Kizi eta atomoaren arriskua eta danaren ondoren lez mundu zabalean legenar lez zabaldu dan gosea. Sugeak bere abiak ugaritu dauz munduan!

### **ERRIAREN ERANTZUNA**

Egoera larri oneri Euskalerraik erantzuna emon bear dautso, baiña orretarako baldintza batzuk bear dira: Pentsatzaille sakonak, ezitzaille onak, politiku edo errigin zintzoak, munduaren egillearen izenean benetako igarleak eta osagilleak, errizaleak eta bake-egilleak...

Estu-aldi labur baten ondoren, etorriko al da zentzun-aldia!

## ZORTZIGARREN ALDERDI-EGUNA

Euzko abertzale guztiok dakigun lez, Iralla-ren azkenengo igandean, 29'an. ospatu zan zortzigarren Alderdi-Eguna, Gasteiz ondoko Salburua zelaikada zabalean, millaka asko alderkide bilduaz eta abertzaletasunen etsaien ernegugarrirako eta, jeltzale geienon poztasunerako.

Ainbesteko notintzak bertan ikusteak samindu zituelako edo, bai zan orraitio Euzkadi onetan egunkarien bat, ogei ta amar edo amabost milla notin inguru bertan izango zirala urrengo astelenan idatzi ebana.

\* \* \*

Ba'dakigu gure lurralde onetan algitalduten diran izparringi batzuk, guzorra ugari edo, egia erdizka erabilten dabenak dirala, baiña, orrenbesteko guzurtzarrik iñori iruntziago nai izango eutzoenik ez. Jakiña da! zelai zabal artan bildu zan ostetza, zenbatutzen oso sailla edo eziñezkoa zana, baiña, bertaratu ziran berebillak eta berebiltzarrak zenbatu ezketio, erraz egoan, gitxi gora-bera, igarten, eun da ogeita amar millatik gora izan gintzazala bertaratuak, nai ta zerbait geiago bere orretariko bilkuran ikusten oituta egon aurreko urte batzuetan.

\* \* \*

Egia da, geure begiekaz ikusi dogu azkenengo urte bietan baiño zerbait gitxiago bildu gerala bearbada. Salburua'ko zelaikada eder orretan. Eta, ez da izan eguraldi txarragaitik, ez eta zelan bertaratu egon ez dalako be ez; Euzko Alderdi Jeltzalean etsaiak, siñeztu bere egin ezin leileken aspi-joko zital eta zabalkunde zikoitza egin dabelako baiño, eta tamalena! abertzaletzat burua erakutsiten daben askoen tartean, eta Batzoki batzuetan bertan bere bai. Aldebatetik, Gasteiz'era aldatuteko erraztasunik ipiñiez eta, bestetik, abozabalik pizkat epelago diran abertzaleen aurrean zabalkunde ziztriña egiñik, dauken adore kemen gitxioa kenduteko. Benetan tamalgarria "abertzale" petral onen jokabidea...

EAJ.an jai orretan izan genduban batzarrea edo mitiña, gure eretziz, oso egokia, bai Klaberia napartarrak egin leuskuna ta bai Ardanza Lendakariak eta Insausti, "Uzturre" aberkide goralgarriek azaldu zituen itzaldiak, bada, naita gai asko ta zakonak azaldu, barrena pozoituta ez eukanak baiño bestek txartzat artu ezin leikiezanak. Ori da gaur-egun daukaguzan arazoak txairo astindutea, asmuz iñor samindu barik.

Nik ez dakit zertatik, nundik eta zertarako sartu dan euzko abertzaleon tartean aspaldian susmatzen dogun pozoin zitala: burua erakutsi naia, arrokeria, agin-gurea, nai ta almenik eukiez orretarako, neurribako txindi-zaletasuna ta abar luze bat. Eta jakiña! akats kaltegarri orren jabe dan gizakiak, nai ta abertzale bere burua egin, ez dau bere aurrekoantzat bear dan begirunerik, ez itzalik eta, gitxiago aginpide baten zelan edo alan ipinten dabenean.

\* \* \*

Askok ez dabe aintzakotzat artzen, alderdi errikeri edo politiku baten geure naiez bazkidetzen geranean, alderdi orretako geienak autu ta izentatu daben agintariei araubidez, disziplinaz, beartuak gerala eta, ez zaratatsu gitxi batzuk nai dabena egiteko. Tamalez, ainbat Batzokitan kezkatu gitxi orrei jaramon geigo egiten dautse benetako agintari zindoai baiño. Orretara, aberkideak ez dautsegu bear dan lez jarraitzen geuk ain mate dogun Euzko Alderdi Jeltzaleai, Euzkadi'n burujabetzaren bidean zuzenen doian Alderdi orri.

Euzkotarra! zeure benetako. Aberria maite ba'dozu, egizu asterketa sakon bat, biozkorbat eta, aurretantzean bearbada beste jokabide bat izango da jarraituko dozuna. Dana gure Aberria gaitik.

Altuna'tar Josu

OARRA: Idaz-lan au idatzi ta gero jakin dot ziur, beste urteetan baiño notin geiago bildu dala Salburua'n.

## LURDES

1858, Otsailak 11'n, Lurdes'n negu gorrian, iru neskato egur billa: aizta bi ta lagun bat, egur billa etxerako. Lagunaketa aizta txikiak errekatxoa ortozik igaroten dabe ta aizta nagusiagandik banandu...

Gero, alkartzean beste biak ez dabe ezer ikusi... Baiña aizta nagusiak, Bernadete'ek: "Argi aundi bat ikusi dot eta gero zuririk jantzitako andra bat, Mas-sabielle'eko atxzuloan. Irribarre egin daust eta urreratzeko kiñua... Aitaren egin gura izan dot eta ezin... Baiña berak egin dau eta orduan neuk be egin dot..."

Egunak barru, Andra Zuriak Bernardatxo'ri: "Etorri gura dozu, mezedez, amabost egunetan ona?"... Bernardatxo, 9-10 urte emoten ebazan 14 urtedun neskato gaixotia zan. Ezjakiña: ia irakurten eta idazten be ez ekiana. Baiña zuurra; zentzunduna; baserritar senez betea... Olan, "Ama Birjiñea ikusten ei dozu" esaten eutsenei berak erantzun: "Nik ez dot ori esan!"...

Eta beste bein diñotso Andra Zuriak: "Esan abadeai kapilla bat egin dagiela emen!". Eta urrengoan: "Eleiz-bidea egiñez etorri daitezela!". Parrokuak Bernadette'eri: "Nor da Andra ori? Bere izena zelan da?... Esan egiozu, Lurdes'ko parrokuak ezezagunen-gandik ez dauala agindurik artzen!"

Eta alango baten, Epaillaren 25'ean, izenbako, Andra Zuriak: "Orbanbage Sorkundea naz ni"... Bernardatxo'k esaten ei eban gero: "Parroku jauna lenengo gorri-gorri eta gero zuri-zuri eginda geratu zan entzutean!"

\* \* \*

Olantxe asi zan 127 urte dala Lurdes'ko "Show"a... Ordutik ona, eten barik, jendetzak joan doaz ara! Taldean, peleginaziñean batzuk; banaka be bai beste asko! Bultziz, autoz, oiñez, egazkiñez! Sinistedunak eta baita be fedebakoak; edonundik, edonungoak, edozelangoak... Jakinguran, ikusguran batzuk; otoi

egitera, itxaropen billa besteak! Eta osasun billa aibat gaiso: eta batzuk, osatu egiten dira; beste geienak euren gaisotasuna ondo eroateko laguntza lortzen dabe bakarrik...

\* \* \*

XX. gizaldiaren lenengoetatik, Eleizeak, Lurdes'ko "mirariai", "apolojetika" balioa, fede aldeztzaile balioa emotea erabagi eban. Orretarako, oiezko osakuntza arei osagileen kontrol bat ipintea asmau eban. Olan jaio zan Lurdes'ko "Bureau Medical" deritxon Osagileen Idazgoa, osakuntzak zorrotz aztertu ondoren ziurtatzeko. Gaur egun, osagileen bulego au, Lurdes'tik igaroten diran sendagile guztiai zabalik dago, fededun naiz fede bako; kristiñau izan naiz beste erlejiñodunen bat. Orrez gainera, 1947 tik Paris'en beste "Comite" bat dago, Lurdes'ko osakuntzak, "Osagileen Idazgoak" aituezinekotzat emondakoak obeto aztertu ta egiztatzeko.

1954'tik ona peleginaziño eratueta Lurdes'era joandako 2.300.000 gaisoetatik osagilleak 33.500 osakuntza onartu ditue "aitu-eziñeko osakuntza" lez. Eleizeak ostera miraritzat egiztaurikoak 64 izan dira.

Osakuntzak onartzeko arauak, osakuntza berari dagokionez oneik dira:

– Bat-batekoa izan bear dau, uste-bakoa, osatze-epe bakoa.

– Iraunkorra, 6 edo 8 urtetan osatuta iraun bear ko dau.

– Orrez gaiñera, izan dauan gaitzak astuna izan bearko dau, bizitzea arriskuan jartzekoa, zauria daukana: Berbea joanda dagoanak, buruko zauri bategaitik ez ba'da, ez dau balio osakuntza lez onartzeko.

– Gaisotasuna izpiakaz aztertuak, biopsietan izan diranak. Orrez gaiñera osatzeko erabilli ziran osagarriak, era guztietakoak, aztertzen dira, ziur jakiteko osakuntzan ez ebela eskuartu.

## “BIZKARGI”

Mendi zoragarriak ditu bizkaitar lurraldeak. Orrean artean Bizkagi ezta kaskarrena. Beronen gaiñetik begiak ezker-eskuma, aurre-atze zorrotzurik, aurrean daukaguz arro ta eder Gorbeia, Anboto, Udalaiz, Oiz, Igotz-mendi, Ereñozar, Sollube, Artxanda, Ganekogorta, Pagasarri ta an urrin Europa'ko mendarte garaiak.

*Bizkargi.*—Mendi ortara igoten dauana, ikustez eta aizez ondo asetua, jatsi oi da bertatik. Baita beiñolako gomuta gozo ta triste be: azken-gerratean zarata ta burruka latzak izan ziran bertan. Eta gaur be, or burrukatu eben asko joan oi dira euskal erri guztitik, otoitza egiteko gogoz, an jausitakoen gomuta barriztu nairik.

Ni neu, Zornotza'n bizi nazala ta gudan or ibillia, urte barruan askotan eta Santa Krutz egunean, ots, maiatzaren 3'an eta urrengo igandez, ia beti igona naz Bizkargi gaiñera, Meza emon eta itzaldia egiten. Aurten be an izana nozue egun biotan. Geienetan eguraldi ederra egin oi dau; aurten alan be oso euri-tsua.

*Gorantza.*—Nagusiak esan eustan, ia joango nintzan beste urteetan lez, eta nik beingoan erantzun neutson “bai” biribil bategaz. Eta an izan nintzan egun bietan. Euria izan zan bietan. Baiña ni neu ez naz origaitik ikarutzen: naiz egun ona egin, naiz euria, edurra izan, 75 biderretik gora igonda nago Gorbeira, Igeriñao'ko Edurretako Andra Mariaren baselizan meza emotera. Eguraldiari ez dauzat iñoiz jaramonik egin. Poza naiz naigabea bardin, mendigoizale onarentzat.

Maiatzaren 3'an ospatzen da Santa Krutz. Neu joan nintzan Bizkargi'ra, 12'etan, meza emoten. Ez eban eguraldi ain txarra egin; ume ta zar ainbat jente batu giñean bertan. Domekaz be, illaren 5'an, neu bialdu nindun nagusiak. Eta ni beti egon oi naz gertu mendira joateko, olako jaietan batez be.

Zapatu arratsaldean bizi ta alai jo eban eguzkiak, domekarako be eguraldi bikaiña iragarritz, itxura baten. Domeka goizean be, bere arpegi borobilla sortaldetik agertzean, poz-itxaropenez bete ginduzan.

Baiña laster inguratu jakozan etsaiak —ipar-zelai baltzak— eta zortzirak doi-doi moteldu ziran aren zidar-izpiak. Bederatzi ta erdietarako, nik Bizkargi'rantz urten orduko, zerua-azpi guztia egoan ke baltezeko kolorez. Urteieran neure mendi-makilla neroian eskuan, baiña euri-tantak asi ziran-eta, beingoan artu bear izan neban aterkia.

Arazotza'rako bidea artzean, jente askogaz batu nintzan. Euri-tantai jaramonik egiteke, ari guztitako lagunarteak joiazan Bizkargi'ra. Aurretik zan Tali nire morroi txiki zintzoa be, sorbaldan jan-zorroa eroalarik. Ezta miresgarri, ni urteak lepoan eta, geldigeldi joatea; aldatz-gora asieran, gaiñera, arnastua etorten, gero baketuz doana. Ez al zara konturatu? Orrez gaiñ, katamalo niñoian, praille jantzi barik. Eta nok ezagutu ni? Bide egaleko enbor jausiari iñok ez dautso jaramonik egiten; ezta niri. Azkenez, baiña, Zabale-Goiko ondoan ezagun ninduen andragizonak agur esan eusten maitekor. Eta alkarregaz joan gintzazan, autu gozoan.

Urku mendiskaren azpian alkartzen jatzuz Zornotza'tik eta Gorozika'tik Bizkargi'ra doazan bideak. Goi-goiraño eltzeke kilometru bi lez palta dira oindiño. Len zirimiri zana euri gogor samar egiten asi jaku; kotxe batzuk, geienak beerago itxi dabezana-rren, gora doaz Land-Rover'ak batez be. Bidea, jakiña, loiz, basaz eta lupetzez ezin-bestean bete dauskue, eta bide-basoak betean gora doan jenteak eta guk ortixek ibilli bear. Ermitatik kilometru bat lez beerago, kurutze bat dago bide egalean, ezkerretik, ogei bat urte dirala Areatza'ko gazte bizkor siñistedunak ipiñitakoa; emendik Gernika ta inguruetako erriak eta lurak, miresgarriak dira eguraldi ona danean. Gaur ez, ezta ezer ikusten, laiño lodi lanbrotzua daukagu-ta.

Diñodan gurutze onen inguruan batzen giñan leenago, Etxano, Zornotza, Iburri, Gorozika ta Muxikaldetik, letaniak abestuz Bizkargi'ra igon oi gendunok. Ementxe bertan eize-zaleentzat jolas-leku zabala egiten diardue orain. Gu gaur, euri, aize, otz eta ipar gorri artean, gora ta gora, kilometru bat lako bidea bait daukagu oraindik.

*Mezea.*—Bideak lez gaiña be jentez ondo beterik. Amabiak bost gitxiago dira nire orduarian. Saltzailleen aterpe ta txoznak ugari, amar, amabost edo geiago; erroskilla ta ardao saltzailleenak batez be. Altabozak eta ozengailuak bai zaratatsu! Naizta girorik ez, piñupeatan eta ermita biran ba-da jenterik! Eta oindiño be zenbat datorren, gazte ta zar, Larra-betzu, Morga, Muxika... aldetik! Ezta ezer ikusten, eta alan be, Bizkargi'k jentea erakarten, millaka erakarri be!

Iragarrita egoanez, amabi-amabietan Meza santua. Eguraldi onez zelai erdian edo-ta ermita saietsean abestu oi dogu, eta ikusgarria ta entzungarria izaten da gure Meza, baiñola —anaiak anaiakaz, zoritxarrez— euskaldunak ain errime burrukatu ziran gaiñalde onetan. Gaur euria da, ta lupeztuta bazterrak, ermita barruan ospatuko dogu Eukaristia, jente gitxi-txo sartuko danarren.

Zantzu batera ixildu dira zarata-gailluak, eta mezatan gagoz irureun bat barru ta aterpe. Giro gozoa eliz-barne. Kristo gurutzean josia altaran, argiz ta loraz aberats edertua. “Kanta Jaunari” asi dot, eta trumoi lez jenteak jarraitu. Euskalduna bai dala kantari, barruan borbor daroana kantatzean atan be; asko bait dagoz berton Zumaia, Getxo, Lekeitio, Santutxu, Gorlitz eta Gernikakoak, berton gudari ibilliak. Begiak malco-jario dabe oneik kantatzen.

Irakurgai ta Ebanjelio ondoko itzalditxoan, Kristo gugaitik odola ixuria, maitatu bear dogula diñotset; gure asaba ta aurretikoak maite izan eben lez. Kristok pozak eta atsekabeak pozik eroan zituan, geure maitasunez. Guk be bardin, euria naiz eguzkia, Jainkoa maite izan daigun, eta urko laguna: alkar maite izan daigun euskaldunok. Bat ez ete gara? Zetarako, beraz, ainbeste istillu, ainbeste alkar-jote? Maitasuna dan ezta! Begoz gugandik urrin ikus-eziñak eta gorrotoak. Auxe eskatzen dausku Kristok gurutzetik.

Bost erri-otoitz datoz ondoren. Euskaldunaren fedea, itxaropena ta maitasuna goretsiz, beiñola berton jausitako gudari bipillen alde, berton gagozan guztion alde... Eta zelako durundua atera eban eliz-barruan eta kanpoan “Entzun, Jauna, eskatzen dautzugu” erantzunak. Oiartzun zabala izan eben, baita, “Artu, Aita”, “Santu”, “Gure Aita”, “Jaungoikoaren Bildotsa” ta beste kantuak. Bai, kantaria da euskalduna.

Aizeak intziri piñu-arte, euriak tak-tak leio ostein. Guk baiña gogotsu barruan kantari. Jauna

artzera jentea ta “Ogi-zerutik” zoli, biotzak bere garra kanpora jaurtirik, Jainko-oldez mendia eresi biurtuz. Itxituan ez euki griña bizia atxilo ta loturik. Euri naiz aterri, bebil askerik.

Alako baten amaitu da Jaunartze beroa. Ixil-une gozatsu ondoren, berba bi nik ots-egiten, eliztarrak eskertu ta urrengorarte agur egiñez. Pozaren sua dario baktxari biotzaren lezatic. Azken-otoitza, “Ezkerrik asko, Jauna” ta amaira dogu Meza. Azken-guenean, gurutz oiñean atzen-ordurarte zutik egon zan Andra Mariaren biotza poz-alaitzeko, “Agur, Jesus'en Ama” abestu dogu eraspentsu.

*Eta gero.*—Gure mendi ta bazterrak josirik dagoz eleizatxoz. Gure arbasoen fede bizia! Bizkargi'n be —ez dakigu noiztik— Santa Krutz bas-eliza ezagutu izan dogu. Gerratean ondatua geratu zan, baiña Bizkaiko Foru Aldundiak barriztatu eban, oso dotore itxirik. Berrogetaz urteak joan jakuz arrezkero, eta urteak euren zantzua itxi daroe gure gauzetan.

Oso ikertua da Bizkargi; ni guda aurretik be, ikasle nintzala, meza emoten etorri oi nintzan Begoña'tik. Eta orrela beste askotan, jakin ez zenbat bider. Maite dot mendi-gaiñ au, eta batez be ermitea, ta azken urteotan teillatua batez be, ain ondatua ikusirik, pena aundia artzen dot barruan. Orixegaitik, aspaldi aginduta daukadanez, aurtan konponketa eder bat egin jako.

Azkenez, gorputzari be berea emon bear jakolata, bazkaria. Edonun aurkitu oi ditugu biotz onak, eta nire morroiak eta nik, itxaron bage, bazkari bikaiña izan genduan. Biotz on bik batez be eurenera jatera deiturik, sekulako lagunartean sabel sorriari betekadea emon geuntsan. Baita aldatz bera, Aldana-ra jastean, iruntz, lupetz eta loiak, praka barrenetan itsi-asiak, bee-su txinpartatsuan polito legortu be.

Eta or gu azkenez, gazte biotz-bera batek bere tarrantan etxeratuak, seiretako komentuan. Euria dagoneko bigundu ta amor emona da; eguzkia beerantza doa sortaldeko laiñoak urrez jantzirik. Nik beingoan, “Orduen Liturgia” arturik, Jainkoa, Bizkargi'ko Kristo gurutzean josia, goratu neban, esanez:

“Euri ta intz guztiak, bedeinka ezazue Jauna, aize guztiak, bedeinka ezazue Jauna.  
Su eta beroak, bedeinka ezazue Jauna;  
otz eta otz-min, bedeinka ezazue Jauna”.

AITA ONAINDIA, 1985



## OLERTI EGUNA

Larra'n, urtero bezala, Olerti Egunaren jai berezia izan dogu, ta aurtengoaz ogetaseigarrenez alaikiro ospatu.

Zoko egitan paketsua, ta eguraldia ezin ohea. Eguna, igaz erabagi zanez, Urrillaren 12'an. Datorren urtean J. L. azkenaldiko urteetan fez, Kristo Erregearen egunean izango da. Gaiak oparo datoz, ta Aita Santiren iritxiz biribillago burutuak.

Alan da be Zabalkunde aundiagoa egingo da Bilboko egunkarietan. Sariak ere bere aldetik igokada aipagarria izan dabe.

Mezea amaiketan asi zan, Aita Onaindiak itzaldi ta guztiz emona. Abestiak ugariak eta sentikorak, ta azkenez "Agur Jaunak" biziro abestuta.

### OLERTI-BATZARRA

Maiburuan Aita Santi Onaindiagaz batera igaz Lirika-arloan lenengo saria jaso eban Bidaguren'dar Anjel.

Asiera baten alkarrizketa mamintsua, zati garrantzitsu bat Aurre-*Apraiz* Jaunak bere iritxi garbiak Lirika buruz emonaz. Ortan eztabaidatxu batzuk ia urtero bezala sortu ziran. Orrez gaiñ giroa gazteetan batez bere, ezbaridiña dago.

*Ez H'aren* kontuagaitik soillik, beste arazo sako-nagoak ere "izkera Batua" baztertu barik, esku artu oi dabelako.

Len baten Abadetegietan ta... laguntzen zan gazetatik Olerkiari buruzko zaletasuna jadesten, eta olerki-miña nabaritu oi ebenak irakasle on ta sutsuak ebezan aurrerakuntz pozkorak lortzeko. Orain, ta ez noa luzatzera, norberak goi-argiz olerkirako ikututa egotekotan, alegiñ biziak egin bear ditu jomuga alaikor ori eskuratzeko..., ta geien baten ia iñolango laguntasun baga.

### SARIAK

Iru arlo betikoak: 1) Lirika, 25.000 pezetako saria. Sabin Muniategirentzat izan zan. Bere gazteta-ko Filipinas Ugarteetarako Ibillaldia bizitasunaz ta arnas berroz edestu euskun. Zertxo barri bat. Josu Gaztañaga Abade Jaunak bere argazkirako gaillu edo tresnaz Sabiñek Aita Santiren eskuetatik dirua jasoten eban argazki unea atara eban. Bost liriku lanak izan ziran ederrak eta ondo borobilduak. Eusebio Erkiagak, Bidagurenek berak eta... egiñikoak. Gure Iñaki Zubirik be bere "Aipamena" barru-miñez ta abots zoliz irakurri euskun. Argazkilariaren argazkia be lortu eban, Aita Santi lagun ebal. Bere biozkor lanaren "Azalburua" "Itzalen Zauria" izan zan.

2) Bigarren saria, poema saillakoa, eta 15.000 pezetakoa atan be. Izenburu edo tituloa: "Olatuaren gandorrean". Egillea Gotzon Egaña Jauna. Ezan agertu, Olerti Egunekeo batzarrerera. Zabalkundea be urri samarra izan zalako, batik bat jai eguna be aldatu ta aurreratu zalako. "Aipamena" ia betiko irabazle dogun Ugarte'tar Martin legazpiarrena izan zan.

Bera beti bezala apalkiro agertu jakun, baiña bere lan osoaren kopuruak liburu mardul bat bete leike, iñurriak bezelatxe urtero urtero bere lan ekinkorrari jarraitu oi dautzalako. Ori berbera agertu euskun Aita Santik.

3) Irugarren saria: "Bertso-txorta" deiturikoa, naiz, bertso-sail arlokoa. Jendea erruz, ugari benetan agertu zan. Saria 10.000 pezetakoa. Irabazlea: Agustin Beloki, bertsolari oso jator eta ezaguna.

"Ekaizpeko Arraunlariak", bere lanaren izenburua. Bere abots zoli ta doñutsuaz eder be eder abestu euskuzan bertso-saillaren aapaldi bakoitzak. Azken baten txalo-txarta ugariekaz burutu ebazan bertso-irakurtze, kantatze orreik.

Ez zan ez gutxiagorako bere abots iturri kantaria gogoratu ezkeroz.

Gaztañaga Jaunak be atara eutsan oroipenezko argazkia, Aita Onaindiak ematen eutsan irabaziriko dirua artzerakoan.

Sarritan esan dogun legez gure Larra'ko Olerkariak urtero urtero beti gogotsu jokatu dabe, sarien kopurua joandako urteetan aurtengoa baiño urriagoa izan arren. Ortan dager euren benetako Olerki-Zaletasuna.

### ARRESE BEITIA'RI BURUZKO OMENALDIA

Asiera baten bere bizitz zertzeladak Aita Santik adierazo euskuzan. Bertsolari ospetsuena izatez bat, santugiña zan. Geien baten bere irudiak zuraz ez arriz landuak izan oi ziran. Formen aldezlari sutsu-sutsua izan zan, eta Karlisten ta Liberalen arteko gudan erbezterako bidea artu bearra izan eban.

Otxandiotar ospetsua, bere senidetarkoak txikitik nire lagun miñak izan dira.

Amar urteetan, Otxandion, nire ume urteak igaro nebazan, oroimen pozkar-alaitsuak itxi eustazanak ziurrik asko.

Bertso lanetan txito ugaria izan zanez sariak mor-doza gaiñeratu zituan.

Bertso ugariak, gartsuak, luzeak eta euskerari zaletasunez blai-blai gaiñezka beteturikoak arrese Beitiak gero baterako itxi euskuzanak, ziñez.

Ezagunenetarikoak "Ama Euskereari" omenez idatzirikoak izan ziran. Bidaguren Jaunak irakurri euskuzan.

Datorren urterako omenaldia Gabriel Manterola zanaren goratzarrez izango da. "Gama" izengoitiz geienetan idazten eban. Euzkadin eta Inglendar Errian asko, bai itz lauz bai bertsoz eta olerkiz, idatzi eban. Berak "ikaz" idatziriko be ipuin txorta txiki bat badaukat. Izkera argia ta erreza benetan.

### AZKEN AGURRA

Urtero bezala Olerki-buruzko lan alditxo ondoren, bazkari pozkor eta ugaria. Inguruko bazkaltegi baten. Abestiak, euskal eresbatz batek pozik bereganatuko leukezan bezelakotxeak. Gure "Paulinek" euskèrari buruzko poesi sentikor bat abestu euskun. Gero guztiok alkar leian Sabindar eta beste abertzale kutzuzko bertsoak abestu genduzan.

Koro aparteko bat beteteko lain Aurre-Apr aiz, Agustin Beloki ta Azpiri olerkari-bertsolariak, egitan.

Aulango anaitasunak guztiz pozgarriak ditugu. Ea gazteak, zuek bere ugariago agertzen zarien, gure gero bateko oiñardekoak zarie ta.

Bilbon, 1985'ko Urrillan, 12.

ARREGITAR JOSUK

# ZER

## ALDIZKARIA

- ILLEROKOA (MENSUAL)
- BIZKAIERAZ IDATZIA (EN BIZKAINO)
- ERRI-JAKINTZAREN GAIK (MATERIAS POPULARES)
- IRAKURGAI ERREZ-ERREZAK (LECTURA FACIL)
- ARAZO SAKONAK AZTERTUTA (ANALISIS DE TEMAS)

**ARPIDETU ZAITE!**

**ZER**  
EUSKERAZALEAK

Colón de Larreátegui, 14-2.º - BILBAO-1

## AITA JUAN MATEO ZABALA, OLERKARI (1777-1840)

Batez-bat, zuloari larakoa lez datorkigu emen, L. Akesolo'k oraintsu idatzia, au da: "Guk geure gaue-tan ikusten dogun izarren argia ez da orain bertan izarrok bialtzen deuskuena. Urteak bai urteak egin ditu andik onañño eltzen. Bardintsu jazo da Aita Zabala onen argi edo ospearekin: urteak joan dira guganañño eldu arte" (*Karmel*, 1977-4 Gaur.alan be, zabal dabil onen ospea, bai gramatikolari ta bai ipuin-idazle lez.

### Bizitza

Bilbo'n jaio zan euskaltzale jator au, 1777-9-21'an. Bakiotarra eban aita, ama barriz Billarokoa. Añibarro ta Zabala, biak frantziskotar, adiskide kutunak, euskera maite ebenak eta euskal arloan lan ugari burutuak; biak sermolari ta euskal idazle, euskera ta euskal-erria zaindu ta goratu nairik.

Latin eta gaiñerako eleiz-ikasketak Bilbo'n San Frantzisko komentuan egiñik, beste ikasketa nagusiak —Filosofia ta Teolojiari buruzkoak— Gaztele-rrian egin ebazan, berberak diñoskunez. Erbestean! Eta zelako arantza biotz barruan! Ostikopean eta larri ikusten eban bere izkuntza, ta erria... Berari be, aaztu egin jakon ia-ia amaren altzoan ikasi eban euskera, edo beintzat meza barria abestu ebanean ez eukan egokitasun aundirik eta erreztasunik Jaunaren itza otsegin eta arima-zaintza egiteko. Ez, ezin erriz erri ibilli sermolari. Ta orduan ostera asi zan euskera ikasten, Larramendi ta Astarloa'ren lanak irakurriz batez be.

Buru argikoa zan, eta 1804'an, Filosofi-irakasle izentatu eben Bilbo'ko komentuan; lau urtean orretan jardun eban, au da, Napoleon Bonaparte'k, 1808'an, prailleak euren komentuetatik jaurti ebazan arte. Ordu estu ta larri areitan, ara ta ona ibilli jakun Aita Zabala, beste ordena askokoen antzera, Galizia'ko Herbon frantziskotar mixiolari-en ikastetxean, eta abar.

Erri-miñak joa azkenez, Zarrautz'eko mixiolari komentura aldatu ta ementxe bizi izan zan 1815'tik

aurrera, beti izlari ta langille. Ementxe il zan 1840-2-6'an. Ardura berezizko karguak euki ebazan komen-tu barruan, birritan bertako Aite Nagusi izanik. lenengoz 1826'tik 1829'ra ta bigarrenez 1839'tik aurrera. Bere besoetan emon eban ezken-arnasa A. Añibarro'k. Bergara'ko besarkada ostean, egun la-tzak esan bearko: birritan arakatu eutsoen ederto komentua, baita beste birritan bere, txispa artean, Getari'ra eroan be liberalak.

### Euskal idazle

Beargiñak ez dau gura atsedenek, ez oporrik; berezkoa bait jako lanari loturik bizi izatea. Olakoxea genduan Aita Zabala. Irakasletza ta etxeko kargu artean be, bere izkuntzak kezkarazten eban. Astiune artean ainbat lan, euskal zelaian atan be, mamindu ta osotu euskun.

Ona iru oneik beintzat:

1. *El Verbo regular vascongado del dialecto vizcaino* (Donostia, 1818). 169 orrialde. Zabala ilda gero, Gipuzkoa'ko probintziak argitaratu ebana. Euskerea, egia esan, ainbat urtetako goraberak bizkar gaiñ, bizirik iraun bai, baiña an ta emen naiko aldatua aurkitzen zen, eta A. Zabala'k euskal irakurleak artu zituan elburu nagusizat: uler egiela oneik entzun eta irakurten ebena. Erriz erri ibilliz, erriaren aotik jaso ebazan forma jatorrak erein euskuzan liburu orretan. Eta ortik ikusten danez, naiko "regular" dogu gure bizkaitar aditza, beste izkelgietakoa baiño batu ta loji-koagoa.

2. *Noticia de las obras bascongadas que han salido a la luz después de las que cuenta el P. Larramendi* (Donostia, 1856). Amar orrialdeko idaztitxoa. Auxe dogu idatzi neban nik "euskal literatura bildumetatik osoena, bere laburrean beintzat, geroztik agertu diranai ezer kendu gabe".

3. *Fábulas en dialecto vizcaino* (RIEV, I, 1907, 90 ta 529; III, 25 or.). Bizkaieraz dagoz, Zabala'k gaixoaldi baten osotuak; 23 bat bere-bereak, eta beste

13'ak 11 J.A. Mogel'etak, bat Bizente Mogel'ena ta beste bat Salaberri'rena.

Sarri esan doguna, ta esango be bai: Ipuin-zalea da euskalduna, ta bertso griñaz betea. Ba ekian ori Zabala'k. Eta makal-aldian orixe erabilen gogoan, bizkaitarrai ipuin batzuk eskiñi bertsoan: "Makalaldi baten —diño berak—, beste gauzatarako ez nintzanean prestu, eta oean bestetan baiño astiroago egon bear izaten nebanean, ene atsegingarrirako uste ez neban egiñen oni ekin neuntsan". Eta zergaitik bertsoan? Berak barriro: "Onelango ipuiñak izan daroe berezko gatza, gazigarria ta uia, gogoa joteko, begizkoa egiteko, ta errazago oratu ta erantsiteko". Eta emen daukazu Zabala euskal idazlea, olerkari be egiña.

### Olerkari

Zabala'ren alegi edo ipuin bertsoak ez dabe,

beste askorenak lez, autsarrean egote luzerik egin. 1934'an, "Euskaltzaleak", J. Ariztimuño'ren itzauzrez dotore, "Eusko-Alegiak" eritxon liburutxo atera eban; alegi edo ipuiñok A. Zabalarenak ziran. Geroago nik be, 1954'an "Milla Euskal Olerki eder"-ean, bilbotarraren 9 alegi sartu nebazan. Arrezkero be, orre-emen, aitatuak izan dira. Beraz, ez dituzu aizearen arnas utsa legez. Alegi orreik, literatura orokorreko altxortegitik, gunez beintzat, jasoak izatea ba leiteke; baiña Aitzolek: "Alegi oiei eusko-kutsua erantsi zien. Bertso errezetan oparotsu ipuiak adierazten dizkigu. Ain errezki bertso doaia gure artean izan duanik gutxi noski".

Sarritan olerkari baten lantxo bat naiko izan oi da gizaseme orrek zelako galtzak jazten dabezan jakiteko. Irakur eta txasta egizu zeuk askoren artean auke-ratu dodan au, "Gurasoa ta umeak" deritxona:

"Ilteko etsita ia egoan  
guraso batek, umeak  
aurrera ekarri, ta ondoan  
dirautsez olango berbak:

—Ene semeak,  
gutziz maiteak,  
nik laster il bear yoat.

Ia niretzat ez dozak ezer  
mundu onetako gauzak;  
zuentzat ortxe, bai eta laster  
itxiko yoadaz danak:

ortxe bazterra,  
etxe ederra,  
eta mastui galantak.

Baia, ez ñeukek nik joan gura  
zeuei au esan bagarik,

onen mastuitan zaintsu atxurra  
erabillita sakondurik,

katanarrua,  
bean sartua,  
topauko'zue beterik—.

Andik guraso au il ezkerro,  
are esan gañera  
semeak lana bero bai bero  
egiten abiau dira:

mastuia atxurtu,  
zoiak apurtu,  
ta azpiko lurak ganera.

Katanarrua ez zan agertu;  
ez eta beste dirurik.

Baia mastuiak alan atxurtu  
eta mats-mordoz beterik  
euren saria

irabazia  
gonburu deutse ekarririk.

Ganezka, bada, upakerea  
bete daue txakoliñez;  
ta batzuk edan, saldu bestea,  
kontuak jota, azkenez,  
seme bakotxak  
dituzan poltzak  
bete dituz urre onez.

Dirautsa, bada, bat-besteari:  
—Ze katanarru oberik?  
Nonbait aiteak au iragarri  
nai yeuskuan, ez besterik—.

Ea, gizonak!  
lan on sakonak,  
onexegaz aberatsik".

Ipuiñok dirala-ta askok emon dau bere eritxia, ta ez beti bat datozanak. Azkue'k diño: "Bilduma poli-

ta". Eguzkitza'k: "Ez da munduko ipuilari aundian ondoan ipintekoa; biña aintzat artzekoa, bai".

AITA ONAINDIA



# LAU URTEKO NEURE IBILLERAK (IX)

Lan barik geratu giñanean, egun baten, ez dakit zelan, putz edo baloi baten jaube egin giñan; eta futbolearen jokatu genduan. Denpora askoan jolasik egin barik gengoan eta bat-bateko joko arek ler eginda itxi ginduzan. Urrenge egunean, erderaz esanda, agujetak neukazan eta orregaitik izentautako egunean ezin joan izan giñan Donibane Loitzun'era ta egun bat edo bi atzerago joan giñan.

Karlos'ek ez eukan iñor senide edo lagunik Donibane'n eta ez beste iñun Prantzia'n. Beraz, arek ezin eitekean piñuetako lurraldea laga ta berari laga geuntsan danona zan serrea. Azala kentzekoak be antxe laga genduzan. Aizkorak ez; aizkorak osabanera ekarri genduzan, kirten barik, uste dot.

Nik, neure azala kentzekoa, sukalde gaiñean laga neban, zearka esegita, azpian ingi baten bertso bi jarriaz. Ez nebala nai geiago piñu lanik egin eta ez peladorik eskuetan artu, esaten neban.

¡Zelakoak ete ziran nire lenengo ta ia azkenengo bertso areik! "Ia azkenengo bertsoak" diñot, bada beste bein bakarrik egin izan ditut zer edo zelako (zeozelako) batzuk.

Donibane'ra txirringan joateko ustea geunkan. Gure gauzak Saint Siphorien'dik bultziz bialdu genduzan eta agujetak joan jatazala ikusi genduan, betiko laga genduzan piñuak.

150 kilometro inguruko bidea egoan andik Donibane'ra. Bide luzea, batez be Teodoro ta nire moduko txirringan ikasi barrientzat. Baiña egunak luzeak ziran eta egingo genduzan kilometroak astiro-astiro. Ta goizean eguna argituaz batera urten genduan. Ez dakit zer egun zan; geienez be lau bat egun peitu ziran San Juan egunerako. Asi ta laster, nire agujetak oraindik kendu barik neukazala konturatu nintzan. Nekea gorputzean nabaitzen neban. Ta kilometroak eginda be ez nintzala obeto jarten ikusita, bultzia egoan errira eltzean bertan sartu bearko genduala esan neban eta uste orregaz giñoiazan.

Bouridens'tik urten eta 25 kilometro bide ingurura, erritxo baten, baserritar pillo bat autobusean sartzan egozan euren esne ta saltzeko jakiakaz. Ni eurai begira niñoiala, aurreko lagunaren txirringa jo neban ta sabelez gora jausi. Era aretan ikusi nindueanean, barre algaraka asi ziran baserritarrak eta geu be barrez asi giñan.

Barrero txirringan ekin geuntsanean, lenengoan zati baten nire jaustea baiño beste jardun gairik ez geunkan. Ta irri ta barre egiñaz, ba-giñoiazan. Ta kilometro batzuk alan eginda, lengo neke a joan jatala konturatu nintzan; jausi ta barrero txirringan asi ezkerok ez nebala nekerik nabaitzen. Alan jarraitu ezkerok, ez geunkan bultzian sartu bearrik. Ta an giñoiazan neuk zetara egingo eta neban. Baiña ez egoan bildurrik; kilometroak igaroaz giñoiazan baiña ondo aurkitzen neban neure burua. Ori ikusirik, zearo laga genduan bultzian sartzeko asmoa. Ta poztu egin giñan, bada bide a txirringan egiteko gurari bizia geunkan.

Urten eta 50 kilometro ingurura, ardandegi edo orretariko baten geratu giñan amarretakoa egiteko. Gitxi gora-bera beste ainbeste bidera barrero geratu giñan bazkaltzen. Arratsaldean geratu barik ekin geuntsan Baiona'ra arte.

Ara eldu baiño len, Landes'etako lurraldean giñoiazala, erritxo batetik igarotzean, kinkillero batek españiarrak edo euskaldunak edo danadalakoak giñala igarri euskun eta besoak jasoaz eta irri barrez agurtu naian, "Ola, mekauden tal" didar egin euskun, Gokoagaitik biraua jaurtiaz.

Ondo ekian, itxurea zanez, gutarren oitura zikin orren barri.

Baiona'n kaira edo ibaira joan giñan, senide neban Paulo "Soxu"aren itxasontzia egoan tokira. Gizon au, Paulo Etxaburu, lau semegaz urtendakoa zan Ondarru'tik frankotar gudarien igesik; eta ordurako seme bat, Esteban, mutil gazte lodikotea, galduta eukan gudan Asturias'en. Beste iru semegaz egoan orduan an Baiona'n, LAU ANAIK izeneko arrain itxasontzian. An jardun aldi bat egin genduan, jakaña, Donibane'ra.

Ibillaldi luzea izan zan, baiña bape neke barik egin genduan. Bidea, ia Euskalerrri'ra arte, ezin-ta onagoa zan; aldatzik bakoa. Ia aspertzekoa be bai, beti laue ta beti zuzen.

An gengoan barrero Ziburu'n, osabanean.

Milla ta bosteun libera aurreratu nituan zortzi illabeteko piñu lanetan. Zerbaiten jaube ba-nintzala uste neban baiña luzaro baiño len iges egin eusten; ondo begiratuta, bost illabete ez eusten irau.

Piñutara joan aurreko bizimodu berbera egiten genduan. “Alegera” abesbatzan abestuten asi giñan barriri. Aldakuntza bat bakarra: txirringak geunkazan eta noizik bein artu ta ibillaldi batzuk egiten genduzan.

Ziburu’ra joan da laster txirrindularien Prantzia’ko Birea zan. Urte aretan, egun bateko ibillaldiaren azkena Baiona’n izan zan. Ta ara joan giñan bost edo sei lagun txirringaz. Egun aretan txirringan bidean joiazan danak lasterketa a eben gogoan, ta zein geiagoka lez joiazan. Geu be Bidarte’ko aldatza astean al ebanak al ebana emoten asi giñan. Gora orduko alkarrreri alde galantak atara geuntsazan. Irazoki abizeneko napartar gazte bat eldu zan lenengo ta abiadea gixtutuaz, itxaron egin eustan. Alkartu giñanean Rafael etorrela ikusi genduan eta ari biok itxaron geuntsan eta irurok batera joan giñan. Besteak ez genduzan ikusi Baiona’ra eldu ziran arte.

Izentau ditudan irurok alkarregaz giñoiazan estutasun barik eta alako baten, gazte batzuk abiada bizian igaro jakuzan albotik. Ori ikusirik nire lagunak bizkortu egin ziran eta besteakaz batu ta eurakaz joan ziran. Ni ostera, ezin izan nintzan batu alegiñak egin arren eta Baiona’ra arteko bide guztia euren atzetik egin neban, bakarrik, berrogetamar-eun neurkin atzerago.

Lez eginda geratu nintzan. Baiona’n beti lez ibai ondora joan giñan, senide ta lagunak nituan itxason-tzi ondora. An moilla gaiñean gengozala, larrialdia eldu jatan, ezin nintzan zutiñik egon eta lurrean jarri (jezarri) nintzan. Baiña jarrita be ezin nintzan egon eta neukan luzera guztian etzun nintzan. An egozan lagunak zer ete neukan begira; baiña une bateko ondoeza izan neban. Miñutu bat edo beste igarota jagi egin nintzan. Geiago ez neban ezer izan. Txirrindulariak izan oi dabeen erderaz “desfallezimentua”-edo esaten dana zan; lengo nekien ondorena.

Gero, etapearen azkena izango zan belodromora joan giñan. Ordainduta zan sarrerea. Ikuskizun politak ipiñi zituen. Ia guztiak, txirrindularien esprinteko lasterketak ziran.

Amerikana erako laterketea egiten ziarduela, bat-batean kanpaia jotzen asi ziran, larri-larri. Itxurea zanez, Prantzia’ko Birako txirrindulariak gaiñean ziran, uste baiño askotaz lenago. Amerikana egiten ziarduenetako bat alboratu ta geratu egin zan; beste alderdian joianak jarraitu egin eban eta eldu arraiara. Ta sartu zan belodromoan txirrindulari bat, lenen etorrena, ta jendearen txalo artean igaro zan.

Danak itaun bat egiten genduan, berdiña:

— Zein da?

Iñok ez eban erantzuten, iñok ez eban ezagutzen-da. Jendea marmarrean asi zan. Belodromoan alako zalaparta sortu eban txirrindularia ez zan Prantzia’ko Birako lasterketaria, arpegi andiko lotsabako bat baiño. Sartu zan atetik bertatik geratu barik joan zan. Nik uste dot, gau aretan espetsuean lo egingo ebal. Merezki eban beintzat.

Etapea nok irabazi eban ez naz gomutatzen; ez zan entzute andiko txirrindularia. Maillot oria zeñek eroian bai, gogoan daukat: Leduquc ospetsuak.

Gu Prantzia’ra joan giñanean “laisser passer” izeneko agiria emon euskuen. Agiri axe zan an balio euskun bakararra. Beti aldean erabilten genduan; geiengentan galtzen atzeko poltzikoan, kartera edo olako iñun sartu barik. Ta bein, ixiko Maria, galtzak garbitzean ez zan konturatu poltzikoan zer neukan ta ¡Agur! nire “laisser passer” agiria. Ezetarako ez zan paper zarra geratu zan.

Derriorrekoa neban agiri a ta beste bat egiteko oinkadak emoten asi nintzan; ta argazki bat eroan eragin eusten eta andik iru-lau egunera an neukan gertu barria.

Ez nintzan asko poztu beragaz eskuetara emon eustenian. Beko ertzean, eskuz idatzita, berba pilloa eukan. “Situacion precare”n ei nengoan eta au ta bestea. Prantzia’n poltziko utsekoari txarto begiratzten eutsena ba-nekian eta berba areik, nire ustez, ez —eukia— edo nintzala esaten eben eta kendu nai nituan. Gaiñera ez zan egia, orrenbestean beintzat, ez-eukia nintzana, bada, bear nebana, Lorentzo koiñatuak bialtzen eustan. Orduan be ba-neukazan dozena erdi inguru libra esterlina. Ta berba areik kendu naian asi nintzan bateri ta besteari berba egiñaz. Ain zuzen aldi aretan, Scola, Ondarru’ko nire nagusia ta andrea andik igaro ziran eta ostatus egozan hoteleko nagusia Donibane’ko ziñegotzia zan eta beragaz berba egin neban. Ikusi eban agiria. Berba areik ez eukela ezer txarrik, ezer garrantzirik, esan eustan; baiña ezer txarrik jazoten bajatan beragana joateko.

Ziburu’ko erri idazkariarengana ere jo neban; ta gero, Donibane’ko erri-zaiñen buru egiten ebanarengana, ondartzan ezagututa geunkan bere semearen bitartez. Danengandik berba bardiñak entzun nituan. Agirian ziñoanak ez ninduala txarto ipinten, berba areik garrantzirik ez ebela, baiña ezer okerrik izaten baneban eureka joateko, pozik lagunduko eustelata. Iñok ez eban nai poliziakaz sartu. Ba-ekien, kontixu, alperrik zana; edo euren arazoetan iñor sartzea, poliziak txarto ikusiko eben gauzea izango zala uste eben.

## GUDALDIA

Ori ikusirik, burua makurtu egin bear izan neban, "datorrena datorrela" esanda.

Milla bederatzireun eta ogeitamazortzigarren urte aretan guda odeiak illuntzen eben Europa. Hitler'ek, berak nai eban guztia emon ezik laster gudea sortuko ebana, garbi ikusten zan. Ta ezin emon eitekion nai eban guztia, mundu guztia emon ezik a asetzekorik ez egoan-da.

Uda aretan Ameriketara joateko burutasuna ipiñi eusten. Ara zelan izan zan: Gu ez giñan sekula arandegi ta kafetan sartzen; baiña gure lagun Ixidore' en anaia nagusia Manuel, errefugiatuak batzen ziran kafe-etxe batera joaten zan eta guzur eta egi, ainbeste kontu jakiten eban. Ta, aretxek esanda, Venezuela'n arrain lantegi bat ipinteko zirela jakin eban Ixidore'ek; eta bear bada gutzat lana izango zala bertan eta araxe joateko bideak egiten asi bear giñala ta, berotu ninduan.

Ixidore'ek, edo obeto esanda, bere sendiak, arrain lantegia eukan Ondarru'n eta berak antxe lan egiten eban. Nire zeregiña be orixe zan (eta gero be orixe izan da) arrain lantegiko langillea nintzan.

Len esan dodan lez, Europa'n ez zan gauza onik itxaroten eta gertu jarri nintzan Atlantico itxaso andiko urak igaroteko. Venezuela'k Prantzia'n eukan enbajadore jaunak, antxe Donibane Loitzun'en udea igaroten eban eta araxe joango giñala esan eustan lagunak. Aranguren zan enbajadorearen abizena eta gero berak esan euskunez, irureun urte lenago joan ei ziran Ameriketara bere asabak.

Egia esan, nik neuk gogo gitxi, neukan era aretan iñora joateko. Guk Ondarru'n lan egiten genduan arrain lantegiak guztiz atzeratuak ziran iñora ezer irakastera joateko; gaiñera, guk ezagutzen ez genduzan arraiñakaz lan egin bearra izan eitekean an. Baiña nire lagunak ez eukan olako kezkarik; len be arrai txikiak eskabetxe eran jarten ni baiño oituago egoan. Ta aren gerizara, ez neukan bildurrik.

Olan bada, Aranguren'ek Santa Barbara auzoan eukan txaletera joan giñan goiz baten Ixidore eta biok, bere anaia Manuel gidari lez genduala. Etxe barruan sartu ginduzan eta patxadan jarri ta nai beste berba egin genduan. Nik neuk ez asko. Ez ekiala berak arrain konturik esan euskun eta arraiña kontserban gertutea zelan zan idatziz agertzeko, gero berak Venezuela'ra bialtzeko, gure zerbait ikusi edo aztertu eien bere aberrian. Ixidore agertu zan tekniko lez eta ni, esku langille lez; beraz, Ixidore'eri egokion idatz-lan a egitea. Ta egin eta eroan eban.

Gurari bizia eukan Ixidore'ek Venezuela'ra joateko; ames andiak egiten zituan. Etorkizuna antxe moldatu eikeala ikusten eban.

Egunak aurrera joiazan eta an gengoan ea zer erantzun elduten jakun. Ta egun baten apal ostean jan ontziak garbitzen niarduala, ate otsa izan zan osaba Donato'nean. Zein ete zan atea iregi geuntsan eta enbajadorearen txoperra zan nire itaunka. Eskaratzean sartu genduan, eta enbajadorea zain neukala konpoan, esan eustan. Zeatzago esateko, "El señor ministro le espera". Biotza taupadaka asi jatan eta eskuak legortu, aurreko amantala kundu ta urten neban. Beribil barruan egoan bera, Agorette kaleko Gouchour Baita (Guzur Baita) etxetxoaren aurrean. Agurtu ta gero, nitzat baietza etorri zala Venezuela'tik, esan eustan eta urrengo egunean bere etxera joan neinteala, gauzak obeto jakitera. Orduan, Ixidore'entzat zer barri egoan itandu neutsan. Onentzat ezetza etorri zala erantzun eustan, teknikotzat, gu baiño len aurkeztu zan Ituarte abizeneko getariar bat aukeratu ebela ta.

Lur jota laga ninduan albista arek! Agur nire Venezuela'ra joatea!, neure bostean esan neban. Jakiña, enbajadoreari ezer ez neutsan esan.

Joan zanean, bereala Ixidore'engana joan nintzan. Ordurako oean sartuta egoan. Zer jazoten zan esan neutsanean, Galdu nazu!, esan eustan.

— Nik zu galdu? Nigaitik aske daukazu bidea, joan nai badozu erantzun neutsan.

Andik neure etxeratu ta eskutitza idatzi neutsan enbajadoreari. Egia zala arrain lantegiko langillea nintzana, bizi guztian orixe izan zala nire zeregiña-ta. Baiña Ixidore barik ez niñoiala, bada an zer erakutsi gitxi neukala. Ta parkatzeko nigaitik egin bear izan zituan lan eta aruntz-onuntzak.

Gau aretan, bear bada, lo askorik ez neban egin-go, baiña Ixidore'ek gitxiago. Au, biaramon goizean Aranguren jaunagana joan zan. Ta ain zuzen, bera antxe egoala artu ei eban enbajadoreak nik egin neutsan eskuitza.

Nire errian ea zer irabazten neban itandu ei eustan enbajadoreak Ixidore'eri.

—Zortzi laurleko inguru, eguneko.

—Eguneko zortzi laurlekogaitik lagaten dau Venezuela'ko etorkizuna? Gizarajoa!

Nitzat ekarri eban itunbena auxe zan: Aruntzkoa ordaindu ta urtebetean eguneko iru bolibar. Gero jakin nebanez, ez zan irabazi andia, baiña beintzat, Europa'ko ekatxari iges egiteko erreztasuna zan.

Baiña zarbait nintzala-ta, ara joan eta lotsagarri geratzea baiño edozer be naiago neban eta ez nintzan joan.

KAMINAZPI

## Afrika-sorkaldean ibillaldi bat

*Ogei milla kilometroko oporraldia  
1975'eko dagonillan*

PEÑA'tar Xabier'ek

### Dagonillak 9: larunbata

Seiterdian jagi. Egun argi. Zerua ozkarbi, Ikuspegi polita. Bidezorro ta ogerakoak jaso ondoren, gosaria: naranja-erdia, porridge, okela ta arrautzopil apur bana, te ugariaz. Zortziretan abiatu. Baso itxian aldazgora, ta bide bustia. Iru ordu-lauren geroago, ganera urten: basoa amaitu egiten da ta landa-zelai zabalak asten dira. Aurrez-aurre, zoragarriro, Kilimanjaro «buru-zuri». Eskualdean, Mawenzi tontor polita.

Bidezidor polit errezean goaz, landan zear (bide bakarra da ta eziña da galtzea). Batzutan lauzlau, nozean bein aldazgoran, baña ez gogor. Bidean, goitik beera, mendigoizale ta baltz-lagunak eten barik. Agur egiten dautsogu alkarri, milla izkuntzetan: jambo, giorni, good morning, agur... eta abar. Bazkari-legea egiteko egonaldi (ordubete inguru). Bide ona gero, baña gorantz. Iruzpalaurrekatxo igaro ta... orra bigarren mendietxea!

Horombo Hut deritxo etxe orreri. 3760 metrotan aurkitzen da. Gaurko ibillaldia be, atzokoa bezelatsu, bost ordu t'erdikoa izan dogu. Seiretan afaria, egun argiz ondiño. Zazpirak eta laurenetan ogera. Ordu asko ogean egoteko, baña lo gitxi, oso gitxi. Otz aundia kanpoan.

### Dagonillak 10: igandea

Atzo bezela, seiterdian jagi. Bidezorroak jaso ta soin-garbiketara apur bat egin. Gosalduek ondoren, zortziretan abiatu.

Aldazgora gogorrean astiro-astiro, Mawenzi eskualdean dogula beti. Mendi guztia txillar antzeko landaraz eta beste txikiago batez josita dago. Lau milla metrotara igotean, «azkeneko ura» ta bidea arritsuago...

Egunero lez, bide erditsuan bazkaltzeko egonaldia. Jateko gogo gitxi, geienok. Gero, bizkar batera igon eta zelaigune aundi-aundia gure aurrean. Zelaigune orren azkenean, goratxuago, irugarren mendietxea agiri da: Kibo Hut. 4.733 metrotan dago. Etxe txikia da, baña guretzat naikoa. Sei ordu emon dogu gaurko ekinaldian. Taldeko lagun batzuk txarto eldu dira, Eusebio ta Odriozola batez be. Beingoan ogeratu bear izan doguz. Eta gorago igoteko gauza ez dirala agiri dago. Alfonso ta Zamakona be, berton geratuko ei dira, tontorrerantza abiatu barik. Biar goizean, apurka apurka, berantza joko dabe. Zuaznabar be eurekin gelditzeko eskeintzen da: jokabide bikaina Petri'rena!

### Dagonillak 11: astelena

Orra Kilimanjaro'ra igoteko azken-ekinaldiaren eguna eldu! Igongo ete gara, ba, tontorreraño? Jainkoa lagun dakigula! Gauerdian jagi gara. Eta ordubatak lauren gitxiagotan abiatu gara, gau illunean. Otz aundia. Bideko ur-zulotxoak izoztuta. Baña aizerik ez, zorionean. Aldazgora pikuan, zearka mearka, gorantz goaz, nozean bein geldiunetxoak egiñaz. Emanuel aurretik eta Hosea atzetik, astiro-astiro, «pole

pole». Bearko, astiro ibilli! Anketan neke aundia nabaitzen da: bost milla metrotik gora gabiltz eta, jakiña danez, goi-nekeak menpean gaitu. Lurra, ganera, ez da tinkoa, arri-autsa baño, ta orrelako bidean nekezago egiten da aurrera. Illunpe aretan, adorez betetzen gaitue Hosea'ren oiua ta abestiak. «Harambee!» oiuari, «eup» erantzuten dautsogu, gure indar makalduak bizkortuaz.

Eta bai pozgarri guretzat, Hosea'ren aleluya kantak entzutea!

Seirak aldean eguna argitzen asten da, ta otza aundiagotzen. Baña ondo goaz danok... Aurrea! Makilla luzea eskuetan, arnasa sakon eta sarri artuaz... orra ganera eldu! Zazpirak lauren gitxiago dira. Gilman Point deritxon tontorrean gagoz, amabostok!, 5.748 metrotan. Gure zoriona! Eguzki goxoa artuaz, jesarri egiten gara. Liburutxoan gure izenak ezarri ta argazki asko atera. Zerbait jan eta edan...

Zortziretan, Uhuru'rantz abiatzen gara. Uhuru (askatasuna esan gura dau izen orrek) Kilimanjaro mendiko tontorrik garaiena da, ta Afrika osoan goitue-na: 6.010 metro ditu. Gilman Point'etik Uhuru'ra bide erreza da: ordu ta lauren inguru, mendibizkarrari jarraituz. Gure poza, guztiok Uhuru'ra eldutean! Ekarrri gaituen gidari jatorrak eta taldeko lagun guztiok besarkada beroa emoten dautsogu alkarri. Bein ta barriz «Harambee!» oiua ta «Aleluya» abestiak entzuten dira. Ango liburutxoan barriro be izenak ezarri ta milla argazki egi-



# KILIMANJARO

ten dogu. Ondo aterako al dira!

Gauza batek arritzen gaitu. Gure tontor onetan eta ekarri dogun bidean, edurrik ez. Edur-bildu batzuk an-emen: utsa... Alde bietan, ostera, mendikate luze bi, goitik beeraño edur izoztuaz zuri-zuri! Ikuspegi zoragarria! Begiak ezin ase, edertasun aregaz...

Baña ordua aurrera doa ta bide luzea dogu eginbearra, Horombo'raño. Amabi-amabitan Gilman Point izeneko lekura eldu gara, ta beingoan abiatu berantza, arriautsetan zuzen. Gidariak diñoskuenez, sei orduan igon doguna ordubetean jasten ei da. Eurak bai! Dana dala, jatxiera be neketsua izan arren, orduterdi inguruan Kibo Hut etxera eldu gara. Eta sartu orduko, an datoz gazte baltz bi, laranja-ura ta melokotoi zati bana eskeintzera. Bai gozo!

Ordubeteko atsedean artu ondoren, or goaz berantza, gauerako Horombo etxeraño eldu bear dalako. Tontorrera igon barik Kibo Hut orretan gelditu diran 5 lagunak, gure aurretik jatsi dira. Guk lau ordu bear izan ditugu Kibo Hut'etik Horombo'raño elduteko. Illunabarrean eldu gara... ez nai orduko! Lanbide gogorra izan dogu gaurkoa: goizeko ordubetean ibiltan asi eta arratsaldeko seiterdiak arte «dantzana»! Afaltu ondoren pozik etzun gara guztiok, logureak eta nekeak erreta...

## Dagonillak 12: asteartea


Seiretan jagi. Seiterdietan gosaria. Ta ba-goaz barrero, talde txikitan, mendi-ibilleraren azkenzatia egitera: Horombo'tik Marangu Hotelera, Mandara'ko mendietxetik zear. Zortzi orduko bidea egin bear dogu. Eguraldi otza dago. Goi-goian, Kilimanjaro, eguzkitan argitsu. Gure oiñetan, laño-ixaso ederra. Eusebio ta Juanito neke aundiz dabilta. Eusebio'ri Jose Luis'ek besotik oratuten dautso, laguntzeko, ta badatoz astiro astiro. Batzuk aurre-

ratu egin gara ta... Mandara'ko etxean jakingo dogu zoritxarra, beste lagun batzuk eldutean: bidean, goizeko zortzirak aldean, Eusebio gurea il dala! Ibilli dabilela il, «aiene» bat be esan barik! Jota gelditu gara guztiok, itz bat egiten asmatzen ez dogula...

Emanuel, Hosea, Xebe, Iñazio, Jose Luis, Angel eta Blanka aurkitzen ziran bere ondoan, Eusebio il-orduan. Negarrez dardar, «Gure Aita» esan eta il-oge batean ipiñi dabe, Mandara etxeraño eroateko. Mutil bat bialdu dabe ariñeketan berantza, jazo

dana esatera Land-Rover bat igon da bide-erdiaño, ta an jatsi da Eusebio zanaren gorpua... Jainkoak zeruan artu dagiala!

Marangu'ra eldutean, Hoteleko ama-semeak lagunduta, abade katoliku batek eliz-laguntzak emon eutsozan ildakoari, ta gero, Himo erriko polizi-etxera eroan. Ango polizi-gizon bat eta Hoteleko semea izan ziran gorpua Moshi'ra eroan ebenak. Marangu'tik 40 kilometrora aurkitzen da Moshi erria, inguru areitan aundiena. Bertan Kristau-gaxoetxe barri ta aundi bat dago, ta ango il-gorde-



Kilimanjaro mendira bidean.

tegian ezarri eben Eusebio zanaren gorpua, urrengo goizean zer egin erabagi arte.

Izan be, zalantza aundian egon gara guztiok, gorpuz zer egin ez dakigula. Eusebio zanaren sendikorik ez dogu inor ezagutzen: lengusu ta lobak dituala baño ez. Gure lenengo asmoa, Moshi'n bertan lur emotea izan da. Ori dogu errezena, noski. Badaezpada, Mombasa'ra dei egin dogu, an dagozan lagunei jazo dana adiazoteko. Gure Afrika'ko ibillaldi au atontu daben Ajentziakoak be Mombasa'n aurkitzen dira, ta euri jakiñeraztea egoki yaku. Bartzuk eta besteak, Nairobi'ko españar-enbajadeaz itz egin ondoren, erabagi auxe artu dabe: berebil bat bialduko dabela Mombasa'tik Moshi'ra, biar goizean Eusebio'ren gorpua Mombasa'ra eroateko ta an lur emoteko. Badakigu ez dala errez izango orrelako arazoa atontzea, baño Hotelekoak eta polizi-gizonak lagunduko dauskuela diño. Bai izango be euren bear-izana! Eskerrak euri! Ganera, ingeles izkuntza ondo dakienak (Ana ta Tere) Mombasa'n aurkitzen dira biak. Gu zelan konponduko eta gara gure ingeles apurtzuaz? Orrelako ezbai ta zalantzetan **murgildurik** ogeratu gara, egun luze ta lazarri au burutuaz.

### Dagonillak 13: eguaztena

Goizeko bederatzietan, Xebe ta biok, Hoteleko etxekoandre ta aren seme argi Seamus lagun ditugula, Himo'ko polizi-etxera joan gara. Astiro —baltzen eragina ta bizi-neurkerea ez dira gureen antzekoak— paper batean zerbait idatzi dabe: jazo danaren automena. Orri ori, polizi-gizonak berak eroango dau eskutan Moshi'ko Gaxoetxera. Geu be beragaz goaz. Gaxoetxe aretan, atarian, ordubete emon genduan anai biok, Hoteleko ama-semeak españar lekaike baten billa joan bitartean. Ordubete aretan zer ez genduan ikusi gure begiak!

Lekaikegaz eldu diranean, or

goaz guztiok Gaxo-etxeko il-gordetegira, Eusebio zanaren gorpua dagon tokira. Osagille batek (alemana bera) itaunketa bat egiten dauku anai bioi, eriotzaren zertzelada guztiak jakin guraz. Idazki bat egiten dau, eta guk izenpetu. Ildakoaren gorpua aztertu ondoren, eriotz-agiria idazten dau (bertan, birietako edemaz il dala diño).

Ordubatak dira. Gorpua berebillean Mombasa'ra eroateko il-kutxa bat bear da, ta Moshi osoan inun ez ei dago orrelakorik. Erritik 10 kilometrorra italiar baten aroztegia ezagutzen dabela-ta, ara doaz, kutxa ori egiñaraztera. Bitartean, ostatu batera eroan gaitue anai biok, bazkaldu daigun. Laster alkartzen gara barriro danok: ama-semeak, lekaike, berebileroa, polizi-gizona ta gu biok. Aroztegiara goaz. Baña seirak arte ezin amaitu izango dabela diñoskue. Astia emoteko, lekaikearen komentura joan gara. Jasokundeko lekaikeak dira, ta Euskalerrian be leku askotan ditue etxeak. Tanzania ta Kenya errietan ikastetxeak daukez, neskatillen eziketarako. Guri lagundu daukun lekaike Tenerife'koa da. Obeto egiten dau bai ingleseraz eta bai swahilieraz, españeraz baño. Beste iru lekaike ezagutu doguz emen: bata, Bruselas'koa, etorbarria; beste biak, Ruanda'ko baltzak, alai ta begi-begikoak! Irurak prantzeraz egiten dabe: gure poza! Barriketa luze egin ondoren, agur beroa egin dautsegu. Izara bat emon daukue, Eusebio zanaren gorpua biltzeko. Eta ba-goaz barriro aroztegiara, estukuraz, lenbailen abiatu nairik... Mombasa'raño 315 kilometro diralako ta bidean, noski, leku askotan gelditu bear izango dogulako.

Il-kutxea ez dabela edozelan egin nai diñosku arotzak, ondo baño, ta astia bear dala orretarako. Etxe-barrura sartzen gaitu, bere sendikoaz itz egin daigun. Senar-emazteak dira, bost seme-alabekin, iztunak eta alaiak. Abe-

girik onena egin daukue. Zein izkuntzetan egin dogun? Batek ba-daki! Italiara, españera, inglesera... dana naasia. Euskaldunon arazoa ondo ezaguna dabe. Ta berton egin dogun egonaldia, gure estukuren gozagarri izan yaku. Ba-genduan orrelako zerbaiten premiña, Jainko maitea!

Alako baten, zortzirak inguruan, orra il-kutxea amaitu. Kontuak atondu, italiar sendi begikoa agurtu ta... berebillera. Gorpua Gaxoetxean il-kutxan sartu dogu, ta polizi-laguna ondoan dogula, Himo'ko polizi-etxera joan gara barriro be. Gaueko zortziterdiak dira. Lau polizi-gizon, itz eta pitz, estutu barik. Aundiago bat dator gero, nagusia noski. Agiri-idazkia irakurten dau... (amar bider irakurteko astia emoten dau!). Alboetan lagunak, begiak agirian josita, ixil-ixilik. Alako baten, boligarfo bat arturik, agiria ta aren kopiak (zazpi) banan-banan izenpetzen asten da. Gero, banan-banan barriro, sellua ezarri ta bako-txa bere estalkian sartzen da, ganean zuzenbidea idatziaz. Dana patxadaz eta astiro. Amaitu dabenean, eskua luzatu, bostekoa emon eta atsekabeen laguntzen daukue. Guk... «thank you» ta «asante sana» milla bider...

Ta ba-goaz aurrera, Tanzania'ko errialde ona utzi ta Kenya aldera. Taveta'ko muga igaroten dogu, zeregin guztiak bete ondoren. Kenya'ko poliziak be bostekoa luzatu ta gure samiñean laguntzen daukue. Jende ona, benetan!

Gaueko bederatzia eta laurenetan abiatzen gara Kenya'ko gau ozkarbi izartsuan, Eusebio lagun ona zanaren gorpua ondoan daroagula. Sinistea be! Gu bizirik... eta bera illa! Au biotz-nekea! Baña... bedi Jainkoagan zoriontsu gure Eusebio, ta goazen bi-zioik aurrera, geure azken-ordua etorri arte!

Goizeko ordubatetan eldu gara Mombasa'ra. Ango Gaxoetxe batean utzi dogu il-kutxea. Atarian gagozala, berebil batetik senar-

## KILIMANJARO

emazte baltzak sartu dira Gaxo-etxean, aurtxo bat besoetan dabela. Laster, aurtxoaren negarrak!... Baltzen aurrak be, negar, miñ dabenean...

Hotelera joan (Mombasa'tik 13 kilometrora), ta an dagoz gure taldeko lau neskatillak, gure zain. Lotara goaz, beingoan.

### Dagonillak 14: eguena

Taldeko lagun guztiok, gosalduta gero, Mombasa'ra goaz. Ango eliz katoliku batean Eusebio'ren illetak egin ditugu, ta ondoren, bertako illeri katolikoan lur emon dautsogu. Eguraldi beroa... ta gure biotzetan otoi beroago, lagun ona genduan Eusebio zanaren alde. Illerri-ondoan lekaimete bat dago, ta bertan Segobia'ko bat. Aren eskutan utzi dogu, Eusebio zanaren illobian kurutze bat eta izena ezartea.

Hotelera itzuli ta bazkalduta egin dogu. «Whitesands Beach» deritxu gure Hotelari: izan be, ondartzat luze-luze baten ondoan aurkitzen da. Errerik ez, inguruan. An-emenka, Hotel batzuk. Gurearen ondo-ondoan, Kenya'ko Lendakariak Mombasa'n daukan

bizileku dotorea. Ondartzan, lagun banaka batzuk baño ez. Alde ederra gure Euskalerriko ondartzetan izaten dan jende-moltso ta itomenaz! Ura, epel eta bare. Ondarra, zurizka. Hoteleko jantokia, aundi ta apaiña.

Logelak, oraiñaldiko itxurakak, polit eta erosoak. Jatorduak, goxo ta ugariak.

Eguraldia apur bat beroago, baño ez larregi: 28º geien. Illunabarrean oso atsegin.

Afalondoan, kanpoan, dantzari-talde baten jaialdia. Iru ordu-laurenean etenbako dantza bizia ta dardarakorra, soiñu danbadatsua lagundua. Ikusgarria.

### Dagonillak 15: barikua (Andra Mari'ren eguna)

Goizeko zazpiretan, gosalduta aurretik, ondartzara jatxi ta itxasoko ur epeletan bustialdi bat artu dogu. Gosalduta gero, Mombasa urira joan gara, atzo ezagutu genduan lekaimetxeko elizatzoxan meza entzutera. Mezea, Don Ino'k esana, Eusebio zanaren alde eskeiñi dogu, lagun ona goratuaz.

Meza ostean, Fort Jesus izene-

ko gaztelu aundia ikustera joan gara guztiok. Orain 400 urte egin eben gaztelu ori portugaldarrak. Kaialdean dago, ta bertan bizi ziran gudariantzat babesleku sendoa zan, itxasoaldetik etozan are-rioakandik Mombasa zaintzeko.

Gizaldietan zear, burruka ta gorabera ikaragarriak jazo ziran leku orretan. Ikusgarriak dira ango kañoi-leio, torre ta begiratokiak; baita gela batzuetan erakusten ditan tresna, izkillu, ontzi, jantzi ta orrelakoak be.

Hotelean bazkalduta ta barrira urira, geienak eroshketak egitera. Highways Ajentzian ibillaldiko kontuak garbitu doguz... Nasai gelditu gara! Uri-barruko kalerik nagusienetan ibilli gara gero. Salto kirik geienak hindutarren eskutan dagoz, baño baltzen aginduz Kenya'tik alde egin bearra daukie, luzaro barik...

(Oartxo bat: Gure Afrika'ko ibillaldi osoa amaitu ta gero, auxe esan eben taldeko lagun guztiak: eroshketarik onenak eta merkeenak Mombasa'n egiñikoak izan ziralara. Beste baterako, edo beste batzuentzat, orra gure eritzia...).

ZER Bizkaieraz dogun aldizkari bakarra da.  
ZER irakurteko erreza eta atsegintsua da.  
ZER bizkaitarrentzat ulerterreza da.  
ZER erriko euskereari laguntzeko egokia da.  
ZER guztiok irakurri ta zabaldu bear dogu.

*Egizu arpidedun barri bat.*

*Ekarri EUSKERAZALEAK'eri.*

*Ordez, liburu polit bat artuko dozu.*

**EUSKERAZALEAK**

## EUSKERA ABERASTU

Euskal esaldi jator oneik Domingo Agirre Abadearen GAROA liburutik artuta dagoz.

Alboko zenbakiak GAROA liburuaren orrialdeen ezaugarriak dira.

\* \* \*

“Joanes antzaiari *ez zion eramango* 19 urteko gazte batek...” (4) (No le aventajaría...).

“*Oso jarria zegoan* Joanes mendi-oiartzun guztietara” (4) (Estaba muy acostumbrado...).

“Bere buruari *geiegi zeritzaion*” (17). (Tenía demasiada buena opinión de sí).

“Zabaletatarrak ez ziran ainbeste *ardoari emanak*” (20) (No eran tan aficionados al vino).

“*Lo aspertu* bat egin” (21). (Hartarse de dormir).

“*Begiz jotako* kerizpea” (21). (La sombra elegida de antemano).

“*Begiz jotako* neskea” (24). (La chica preferida, elegida).

“Beartsuentzat *emankorra*, etxe koentzat *eutsia*” (25). (Generosa para... tacaña para...).

“*Ara beste argi-iturri!*” (26). (Vaya con este sabiondo).

“Bakoitza *bere gain jarri*” (28). (Ser dueño de sí, independiente).

“*Eta orduan ordukoak*” (30). (La que allí se armó).

“*Jas, ori gizadiz doa*” (38). (Qué cantidad de gente va).

“Diek barre algarak” (38). (Vaya carcajadas, qué risotadas).

“*Jolaserako gogoan* daukazute *bizarrak*” (39). (Hombres, tenéis ganas de jugar).

“Gutxik *eramango dio* euskaldunari jaten eta edaten” (56). (Pocos le aventajarán al euskaldun en...).

“Nora eta Burgos aldera!” (48). (A quién se le ocurre...).

“Ai denak balira” (50). (Ojalá lo fueran todos).

“*Oso bere lagun artua* da” (51). (Es su amigo preferido).

“Zure semea *ertenegia* da” (53). (Tu hijo es demasiado atrevido).

“*A zer izatekoa*” (58). (Vaya qué hombre).

“Emango al die Jainkoak” (58). (Ojalá les conceda Dios).

“Dagoneko” (59). (Ya, para ahora, para estas fechas...).

“*Bai zera oztu*, dagoan beroaz” (60). (Qué se va a enfriar, con...).

“*Orixe gizon gordiña* zagozana” (61). (Qué vigoroso estás).

“*Onean nago*” (78). (Estoy de buenas).

“*Bereak eta bi* aditu ditu” (81). (Oír las cuarenta).

“Beren tokiak utzi zituzten *berebiziko* azkarren”. (Lo antes posible).

GOIKOETXEA INAKI

ARPIDETZEKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... 'tar .....  
 ..... kalean (auzoan) ..... zenbakian  
 ..... errian, ..... errialdean (probintzian)  
 Arpidetzea ordaintzeko ..... diru-etxera (bankura) bialdu ordaintxartela, an daukadan ..... zenbakidun diru-kontura.

# ZER

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

# Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoian, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita, otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena, barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta, batez be, emoneko berba lez daroan Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.  
Itxasoaren oldarra gelditzen,  
gizonaren neurribako  
alegiña:

**BIZKAIKO**  
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS  
**VIZCAINA**

**Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.**